



Argazkia: May Zirkus

Irudien garrantzia albumetan

Teresa Duran i Armengol

**San Telmo Museoan,
azaroaren 26an, goizez eta arratsaldez**



STM
San Telmo Museoa



DK
donostia
kultura





“Irudien garrantzia albumetan” ikastaroa

Hamabost urte baino gehiago dira Galtzagorri Elkartek Haur eta Gazte Literaturako Irakurketa Mintegia martxan jarri zuenetik. Haren barruan, urtero, tailer, hitzaldi edo ikastaro bat eskaintzen die mintegiko parte-hartzaileei eta interesa duen beste edonori.

Aurtengo ikasturterako formazio saio berri bat antolatu du Galtzagorri Elkartek. Oraingoan, **irudiei, ilustrazioei erreparatuko diegu eta albumetan duten garrantzia aztertuko dugu Teresa Durán i Armengol-en eskutik**. Adituak 7 ordu eta erdiko ikastaro trinkoa eskainiko du.

Duranek ilustrazioen begietatik ekarriko dizkigu albumak. Irudia jaun eta jabe den aro honetan, paradoxikoa bada ere, alfabetizazio bisualaren beharrea gaude eta antolatu dugun ikastaroak behar horri erantzun nahi dio puntako aditu baten ahotsetik. Duranek bere saioan egingo dituen galderetako batzuk: Zerk bereizten ditu album ilustratuak eta liburu ilustratuak? Ez ote da irudiaren irakurketa, alfabetikoa bezain edo are konplexuagoa? Zein dira ilustrazioaren baliabide komunikatiboak? Albumetan zer dio testuak? Zer, irudiak? Irudia hitzetatik ezberdintzen da ala osagarria da? Halaber, Duranek irudien sekuentziazio narratiboa aztertuko du, baita orrialdeen banaketa ere; album moten analisia eta balorazioa egingo ditu baita ere. Horrekin guztiarekin, albumetako irudiak irakurtzeko estrategiak eskainiko dizkie parte-hartzaileei, albumak irakurtzeko beste baliabide eta finean beste begi batzuk.

NORENTZAT:

Haur eta gazteen heziketa literarioa lantzen duten eta irakurzaletasuna sustatzeko kezka eta interesa duen edozein bitartekarirentzat: bibliotekariak, irakasleak, editoreak, kultur teknikariak, irakurketa proiektuetan parte hartzen duten begirale edo animatzaileak, literatur kritikariak...

LANDUKO DIREN GAIAK:

- .Liburu ilustratu eta album ilustratuen arteko ezberdintasunak.
- .Zenbateraino da konplexua irudiaren irakurketa? Alfabetikoa bezainbeste?
- .Ilustrazioaren baliabide komunikatiboak.
- .Zer diote hitzek albumetan?
- .Zer diote irudiek albumetan?



IRAKASLEA:

TERESA DURAN I ARMENGOL haur eta gazte literatura aditua da, ilustrazioan bereziki, Universitat de Barcelonako irakaslea izan da non IMAGO ikerketa taldearen burua izan den; bertan, haurren kultura bisuala analizatu dute. Pedagogian doktore, idazle, diseinatzaile grafiko eta itzultzailea ere bada. Ibilbide luzea egin du erakusketa-komisario gisa eta zenbait sari jaso ditu (besteak beste, Kataluniako Generalitatek 2007an emandako Creu de Sant Jordi), kultura zabaltzeko egiten duen lanagatik.

METODOLOGIA:

Saio dinamikoak izango dira, non talde-lana eta liburu zehatzetan oinarritutako tailerrak nahasiko diren eguneroko jardunetik teoriara joateko, eta handik berriro praktikari buruzko hausnarketara.

NON: Donostiako San Telmo Museoko Ekitaldi aretoan: Zuloaga plaza, 1, 20003, Donostia.

NOIZ: Azaroaren 26an, larunbata, 10:00etatik 14:30etara eta 16:30etatik 19:30etara.

IZEN-EMATEA: [Izen-emate orria](#) beteta eta diru-sarrera egin izanaren ziurtagiria bidali behar daa **azaroaren 18an** baino lehen administrazioa@ibbygaltzagorri.eus helbidera.

Kontu korrante zenbakia: ES87 3035 0242 68 2420002471

Gehienez 35 ikaslek parte har dezakete. Onarpena izen-emate ordenaren arabera egingo da.

- Galtzagorriko mintegiko kideentzat doan.
- Galtzagorriko bazkideak: 70 euro.
- Ez-bazkideak: 100 euro.